

Ezker/eskuin?



GORKA MORENO MÁRQUEZ
EHU-KO IRAKASLEA

Aspaldiko partez zenbait gizarte dinamikak ezbaian jarri dituzte errealitatea aztertzeke erabili diren kategoría ideologiko zein analitikoak, eta hauen artean ezker/eskuin dikotomia ere badagoela iruditzen zait.

Ezker eta eskuinaren bozkatzaileen arteko mugak batzuetan ez dira lehen bezain nabarmenak eta ultraeskuinaren barruan langileen hainbat boto daude, lehen ezkerreko botoa eman zezaketanak. Hainbat mobilizazioetan ere, nahasketa hauek agerikoak izaten ari dira. Frantziako Jaka Horien kasuan, aldarrikapen bateratua egon zitekeen arren –globalizazio neoliberalaren aurkako leloak–, gerturapena, aldiz, ezker zein eskuinetik egin zen, mobilizazio hauetan ultraeskuineko mugimenduek zein antikapitalistek bat egin zutelarik.

Antzeko gauza gertatzen ari da hainbat lurraldetan, azken asteetan koronabirusari aurre egiteko administrazio publiko ezberdinek hartu dituzten neurrien aurkako mobilizazioetan. Egia da ez dagoela argi ze talde diren liskarrak

Egia da ez dagoela argi ze talde diren liskarrak sortzen ari direnak, baina komunikabide batzuek azpimarratu dute ultraeskuina zein talde antisistemak daudela

sortzen ari direnak, baina komunikabide batzuek azpimarratu dute ultraeskuina zein antisistema talde antisistemak daudela. Ikuspuntu ezberdinez, baina arerio komun baten kontra: esku-bideen murrizketak.

Momentu honetara ailegatuta, talde hauek batzen dituen arerio hori mahai gainean jarri behar dela iruditzen zait: globalizazioak sortu dituen ezberdintasun ekonomikoak, espektatiba eza,

politikaren desprestigioa... Elementu hauek guztiak nolabaiteko XXI. mendeko *Pancho Villaren armada* sortu dute, non gero eta askotariko kolektibo eta jende gehiago dagoen, baina batzuetan argi jakin gabe nola definitu taldea, batzuek ezkerrean kokatzen dute eta beste batzuek eskuinean.

Agian koordenada berriak behar ditugu errealitatea aztertzeke. Ez da izan ezker eta eskuin kontzeptuen ezabapena, baina gaurkotu behar ditugu, eta sortu diren dinamika hauen aurrean kategoría analitiko berriak barneratu beharko ditugu halabeharrez, nire us-tez.

Beste era batera esanda, eta Slavoj Žižek-en hitzak kopiatuz, akaso oker begiratzen ari gara eta giltzak galdu diren lekuan bilatu beharrean, argia ikusten dugun tokian bilatzen ditugu... Alegia, eta neure hitzekin esanda, errealitatea aztertzeke genituen betaurreko zaharrekin jarraitzen dugu eta errealitatea betaurreko horietara egokitzen saiatzen gara, eta ez alderantziz. ●



MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



LUA arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
9451 32997 - Arga daia kalea 28-30 Iruña



aholkukoop
Fiskala Kontables Laborata

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus